

**Irailak 28, zapatua**

**Aitzol Iturriagagoitia biolina**  
**David Apellaniz biolontxelo**



**Aitzol Iturriagagoitia, biolina**

2019an Debussy, Janacek eta Straussen biolin eta pianorako sonatak biltzen dituen diskoa aurkeztu zuen Enrique Bagaría pianistarekin batera. 2020an, IBS Classics-entzat, Fin du Temps diskoa aurkeztu zuen, Messiaen eta Takemitsu konpositoreen obrak biltzen dituen.

Biolin irakaslea izan zen Leipzigeke HfMT Felix Mendelssohn Bartholdy Goi-mailako Musika Eskolan. Gaur egun, klase magistralak ematen ditu Hego Amerikan, Asian eta Espainian. Horrez gain, solista eta ganbera-musikari gisa aritzen da, eta biolin irakaslea da Musikene – Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

**David Apellániz, biolontxelo**

Solista gisa, hainbat emanaldi egin izan ditu eta egingo ditu, besteak beste, orkestra hauekin batera: Sevillako Errege Orkestra Sinfonikoarekin, Lisboako Gulbenkian Orkestrarekin, Extremadurako Orkestrarekin, Kordobako Orkestrarekin, Hondurasko Orkestra Nazionalarekin, Valentziako Orkestra Sinfonikoarekin, Murtziako Eskualdeko Orkestra Sinfonikoarekin, Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin, Granada Hiriko Orkestrarekin, Reina Sofia Ganbera Orkestrarekin, edota Malagako Orkestra Filarmonikoarekin. Hala nola hainbat jaialdi eta antzokitan: Salzburgoko Aspektejaialdia, Lyon eta Nizako jaialdia, Konzerthaus (Berlin), A Tempo jaialdia (Caracas), Madrilgo Auditorio Nazionala, Teatro de la Maestranza (Sevilla), Palau de la Música Catalana (Bartzelona), Granadako Nazioarteko Jaialdia, Palacio de Festivales (Santander) eta Donostiako Musika Hamabostaldia, besteak beste.

2018tik biolontxeloko katedraduna da oposizio bidez, eta behin betiko destinoa du Murtziako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

## **EGITARAUA**

**Biolin eta biolontxelorako Sonata.** Zoltan Kodaly

**Allegro serio, non troppo**

**Adagio-Andante**

**Maestoso e largamente, ma non troppo lento-Presto**

**Biolin eta biolontxelorako Sonata** Maurice Ravel (1920–22)

**Allegro**

**Très vif**

**Lent**

**Vif, avec entrain**